



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko otsailaren 25a

25. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—2015eko maiatzaren 24an Nafarroako Parlamenturako egindako hauteskunderen ondoriozko hauteskunde-kontabilitateen zuzentasunari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

2015eko maiatzaren 24an Nafarroako Parlamenturako egindako hauteskudeen ondoriozko hauteskunde-kontabilitateen zuzentasunari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 28an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako fiskalizazio txostena, 2015eko maiatzaren 24an Nafarroako Parlamenturako egindako hauteskudeen ondoriozko hauteskunde-kontabilitateen zuzentasunari buruzkoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2015eko 2015eko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

2015eko maiatzaren 24an Nafarroako Parlamenturako egindako hauteskudeen ondoriozko hauteskunde-kontabilitateen zuzentasunari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (3. or.).

II. Helburua, norainokoa eta mugak (3. or.).

II.1. Helburua (3. or.).

II.2. Norainokoa (3. or.).

II.3. Mugak (5. or.).

III. Hauteskundeetako emaitzak eta gehieneko diru-laguntzak (5. or.).

III.1. Hauteskundeetako emaitzak (5. or.).

III.2. Hauteskundeetako gehieneko laguntzak (5. or.).

III.3. Diru-laguntzen aurrerapena (5. or.).

IV. Ondorioak (7. or.).

IV.1. Ondorio orokorra (7. or.).

IV.2. Alderdi politikoek aurkeztutako dokumentazioari buruzko ondorioak (7. or.).

IV.3. Formazio politikoek egindako gastuen eta jasotako diru-laguntzen laburpena (8. or.).

V. Aurkeztutako hauteskunde-kontabilitateen erregulartasuna (9. or.).

V.1. Unión del Pueblo Navarro (9. or.).

V.2. Geroa Bai (10. or.).

V.3. EH Bildu Nafarroa (12. or.).

V.4. Podemos-Ahal Dugu (13. or.).

V.5. Nafarroako Alderdi Sozialista (15. or.).

V.6. Alderdi Popularra (16. or.).

V.7. Izquierda-Ezkerra (18. or.).

Eranskina. Egindako lanari buruzko amaierako laburpen-taula (20. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (21. or.).

EH Bilduk aurkeztutako alegazioen erantzuna (24. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeko 12. artikuluekin bat eta Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeko 47. artikuluan ezarritakoa betez, Kontuen Ganberak 2015eko maiatzaren 24ko hauteskundeetan Parlamentuan ordezkaritza lortu zuten alderdien hauteskunde-kontabilitateen zuzentasunari buruzko txostena egin du.

Fiskalizazio-lan hau Kontuen Ganberak 2015erako onetsitako jarduera-programan jaso zen, eta auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako talde batek egin zuen 2015eko abuztuan, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Eman diguten laguntzarengatik, eskerrak eman nahi dizkiegu lan honetan esku hartu duten formazio politikoetako langileei.

II. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK

II.1. HELBURUA

Lan honen helburua da iritzia ematea 2015eko maiatzaren 24an egindako hauteskundeetan Parlamentuan ordezkaritza lortu duten alderdiek aurkeztutako hauteskunde-kontabilitateei buruz, eta iritzi horren emaitza gisa Nafarroako Parlamentuari proposatzea dagokien diru-laguntza, kasua bada, ukatu edo murrizt dezan. Helburu orokor hori, ondoko berariazko helburuetan zehazten da:

- Hauteskunde-araudiaren eta Nafarroako Parlamentuko hauteskundeetako gastu eta diru-sarrerei aplikatzekoa zaiena berrikustea, bai eta oro har aplikatzekoa dena ere.
- Aurkeztutako hauteskunde-kontabilitatearen adierazgarritasunari buruzko azterketa.
- Kontabilitate-erregistroen dokumentu bidezko justifikazioaren berrikuspena.

Fiskalizazioa Nafarroako Parlamenturako hauteskunde prozesura mugatu da. Ez da, horrenbestez, kontabilitateen fiskalizazio bat, ez eta alderdi politikoen finantziazioarena ere; izan ere, azken horren ardura Kontuen Epaitegiarena da.

II.2. NORAINOKOA

Zehazki, Nafarroako Parlamenturako hauteskunderi buruzko azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeak –eta, hark aurreikusten ez duen orotan, Nafarroan ezartzekoa den 5/1985 Lege Organikoak, Hauteskunde Araubide Orokorrenak– agindutakoa betetzeko, lanaren funtsa izan da nagusiki honako alderdi hauek fiskalizatzea:

- Hauteskunde-kontabilitate berezia –eskatutako justifikazioa eta kontabilitateko agiriak barne– epe barruan aurkeztu dela.
- Administrazioaile nagusiek hauteskunde-funtsak biltzeko banku-kontuak ireki dituzten egiaztatzea, eta diru-sarrera eta ordainketa guztiak hauteskundeetarako kontu korrontearen bidez egin direla.
- Hauteskunde prozesua finantzatzeko erabili diren baliabide guztien jatorria identifikatzea, oro har, eta hauteskunde-gastuei aurre egiteko funtsak jartzen dituztenei araudiak ezartzen dizkien betebeharrak betetzea.
- Pertsona fisiko zein juridikoei ezarritako muga, alegia, alderdi, federazio, koalizio edo elkartek jakin bati gehienez 10.000 euro eman ahal izatea.
- Hauteskunde-funtsak emateko debekuak, baldin eta funts horiek ondoko hauetakoren batek heldu badira: edozein administrazioetatik edo entitate publiko nahiz paraestataletatik, bai eta, kontratu indardunen baten bidez, administrazio publikoren bati zerbitzuak edo hornidurak eman

edo obrak egiten dizkioten enpresetatik. Debeku bera ezartzen zaie atzerriko erakunde edo pertsonari.

- Egiatzatzea ezen hauteskunde-gastuak hauteskundeetarako deia egin zenetik hautetsiak aldarrikatu direnera egin direla.

- Fiskalizatu diren talde politikoek aitortu dituzten gastuak araudian ezarritakoaren barruan direla egiatzatzea. Hona gastuak nola sailkatzen dituen araudiak:

a) Hauteskundeetako gutun-azalak eta boto-paperak egitea.

b) Norbere hautagaien aldeko botoa sustatzeko zabalkunde eta publizitate zuzena edo zeharkakoa, edozein direla erabilitako modua eta bitartekoak.

c) Hauteskunde kanpainako ekintzak burutzeko lokalak alokatzea.

d) Hautagaiari zerbitzuak ematen dizkieten aldi baterako langileentzako ordainketak edo sariak.

e) Hautagaien, alderdi, elkarte, federazio edo koalizioetako zuzendarien, eta hautagaiaren zerbitzuko langileen garraio bideak eta joan-etorrien gastuak.

f) Posta eta zigiluak.

g) Hauteskunde kanpainarako hartu diren kredituen interesak, dagokion diru-laguntza jaso arte sortuak.

h) Hauteskundeetarako behar diren bulego eta zerbitzuen antolamendu eta jardunerako behar diren guztiak.

- Hauteskunde gastutzat deklaraturakoak eta behar den epean sortuak direnak aztertzea, ziurtatu ahal izateko kontabilitate, merkataritza eta zerga-arauek eskaturiko funtsezko betebeharrak betetzen dituzten dokumentuen bidez egiatzatu direla.

- Kontrolatzea ezein alderdik ez dituela honako muga hauek gainditu:

a) Foru Legeko 43.1 artikulua ezarritako hauteskunde-gastuen gehieneko muga. Zenbateko hori Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak emandako 87/2015 Foru Aginduak eguneratu eta finkatu zuen: 405.000 eurokoa da.

b) Aurreko Foru Aginduan ezarritako muga, hautesleei propaganda, gutun-azalak eta boto-paperak bidaltzeko gastuetarakoa. Muga horrek 0,24 euro hautesleko egiten du.

c) Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoak ezarritako muga, egunkarietako eta titularitate pribatuko irratietako publizitate-gastuak direla eta, hauteskunde-gastuen mugaren ehuneko 20 dena; hau da, 81.000 euro.

d) Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoaren arabera, bi hauteskunde-prozesutara –foru hauteskundeak eta udal hauteskundeak– aurkezten diren alderdietarako, aplikatzekoa den gastu-muga izanen da haietatik aldekoena dena gehi Gorte Nagusietarako hauteskundeetarako ezarritako mugaren ehuneko 25. Hala eta guztiez ere, muga hori betetzen ote den berrikustea Kontuen Epaitegiari dagokio.

- Jaso beharreko diru-laguntzek, guztira, hauteskunde-gastu justifikatuak ez dituztela gainditzeko egiatzatzea; zehazki 87/2015 Foru Aginduak diru-laguntzetarako ondoko zenbatekoak ezartzen ditu:

a) Lortutako eserleku bakoitzeko, 11.850 euro.

b) Lortutako boto bakoitzeko, 0,95 euro, gutxienez ere eserleku bat lortzen baldin bada.

c) Zuzeneko bidalketarengatik, 0,24 euro hautesle bakoitzeko.

- Urtarrilaren 28ko 2/2011 Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoaren bidez aldatutako 1985eko ekainaren 19ko Lege Organikoko 133.3 eta 133.5 artikulua betetzen diren egiatzatzea, Nafarroako hauteskudeei aplikatzekoak zaizkien moduan. Ondoko betebeharrak ezartzen dituzte: finantza-erakundeek Kontuen Auzitegiari/Kontuen Ganberari jakinarazi behar dizki-

ote elkarte politikoei hauteskunde-gastuetarako ematen dizkieten maileguak, eta orobat ondasunak eta zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek ere, zenbatekoa 10.000 euro baino handiagoa denean.

II.3. MUGAK

Gure lanean eragina izan duten mugak honako hauek dira:

- Hauteskundeetako gastuen eta diru-sarreraren fiskalizazio osoa egiteak eskatuko luke alderdi politikoen ekonomi eta finantza jardun guztia aztertzea, eta aplikagarria den legeriak Kontuen Epaitegiari ematen dio ahalmen hori.

- Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak eta udaletarako hauteskundeak batera egitea – azken horien gaineko eskumena Kontuen Epaitegiarena da– benetako muga bat izan daiteke. Muga horrek zekarren arriskua gutxitzeko, formazio politikoei egindako informazio-eskarian eskatzen zen hauteskunde autonomikoei buruzko gastuak igortzeko, eta udal hauteskundeetako prozesuarekin partekatutako gasturen bat egotekotan, kasuko fakturan zehatz zezaten hauteskunde-prozesu bakoitzari egotzitako gastuaren ehunekoa.

III. HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK ETA GEHIENEO DIRU-LAGUNTZAK

III.1. HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK

2015eko maiatzaren 24ko hauteskundeak egin ondoren, hona eserlekua lortu duten talde politikoen eskuratutako botoak eta eserleku kopurua, Nafarroako Hauteskunde Batzar Probintzialaren 2015eko ekainaren 1eko Aldarrikapen Aktaren arabera:

Alderdia	Eserlekuak	Botoak	Hautesleak
Unión del Pueblo Navarro	15	92.705	
Geroa Bai	9	53.497	
EH Bildu Nafarroa	8	48.166	
Podemos-Ahal Dugu	7	46.207	
Nafarroako Alderdi Sozialista	7	45.164	
Alderdi Popularra	2	13.289	
Izquierda-Ezquerria	2	12.482	
Guztira	50	311.510	501.267

III.2. HAUTESKUNDEETAKO GEHIENEO LAGUNTZAK

Hauteskunde-araudiaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateak hurrengo diru-laguntzak emanen dizkie alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle-elkarteei:

- Hauteskundeetako emaitzengatik:
 - a) Lortutako eserleku bakoitzeko, 11.850 euro.
 - b) Lortutako boto bakoitzeko, 0,95 euro, gutxienez ere eserleku bat lortzen baldin bada.
- Zuzenean bidalketengatik, 0,24 euro hautesle bakoitzeko¹, gutxienez ere eserleku bat lortu duten hauteskunde-zerrendei, betiere hori egin dutela justifikatuta.

Halaber, agintzen da egiazki eginiko hauteskunde gastuen diru-kopurua gainditzen duen diru-laguntzarik ez dela behin ere emanen.

¹ Erroldatutako hautesle kopurua 501.267koa da, Nafarroako Hauteskunde Batzar Probintzialaren arabera.

Aurreko hauteskunde-emaitzak eta haien arabera diru-laguntzak kontuan izanda, ondoko taulan jaso dugu 2015eko hauteskundeetan gutxienez eserleku bat lortu duten formazioetako bakoitzari legokiokeen gehieneko diru-laguntza teorikoa.

Gehieneko diru-laguntzak (eurotan)

Alderdia	Hauteskundeetako emaitzengatik ²	Propaganda bidaltzeagatik	Guztira
Unión del Pueblo Navarro	265.820	120.304	368.124
Geroa Bai	157.472	120.304	277.776
EH Bildu Nafarroa	140.558	120.304	260.862
Podemos-Ahal Dugu	126.847	120.304	247.151
Nafarroako Alderdi Sozialista	125.856	120.304	246.160
Alderdi Popularra	36.325	120.304	156.629
Izquierda-Ezquerria	35.558	120.304	155.862
Guztira	888.435	842.128	1.730.563

III.3. DIRU-LAGUNTZEN AURRERAPENA

Nafarroako Gobernuak bi aurrerakin eman ditu, aurreko 2011ko foru hauteskundeetan jasotako diru-laguntzaren ehuneko 30 eta gehieneko diru-laguntzaren zenbatekoaren ehuneko 45 egiten dutenak, 2015eko apirilaren 29ko eta abuztuaren 28ko erabakien bidez. Erabaki horiek Foru hauteskundeei buruzko Foru Legearen 45.1. artikuluan eta 46. artikuluko bigarren lerrokadan oinarrituta hartu dira. Hona xehetasunak:

Alderdia	% 30eko aurrerakina	% 45eko aurrerakina	Aurrerakinak, guztira
Unión del Pueblo Navarro	122.955	119.619	242.574
Geroa Bai	-	70.862	70.862
EH Bildu Nafarroa	67.553	63.251	130.804
Podemos-Ahal Dugu	-	57.081	57.081
Nafarroako Alderdi Sozialista	77.306	56.635	133.941
Alderdi Popularra	-	16.346	16.346
Izquierda-Ezkerra koalizioa	45.992	16.001	61.993
Guztira	313.806	399.795	713.601

² Hauteskunde-gastuen muga, bidalketa zuzenari buruzkoak alde batera utzita, 405.000 eurokoa da

IV. ONDORIOAK

IV.1. ONDORIO OROKORRA

Kontuen Ganbera honek zera erabaki du: 16/86 Foru Legeko 47. artikulua aurreikusitako hauteskunde-diru-laguntzak kentzeko edo murrizteko ez proposatzea, Nafarroako Parlamentuko 2015eko maiatzaren 24ko hauteskundeetan eserlekua atera duen ezein alderdi politiko edo koalizioentzat.

Dena den, bi hauteskunde-prozesu izan direnez aldi berean, kontuan izan behar da Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoko 131.2 artikuluan araututako gastuen gehieneko mugak baduela zer esanik. Estatuko Kontuen Epaitegiak zainduko du hori betetzen dela.

IV.2. ALDERDI POLITIKOEN AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOARI BURUZKO ONDORIOAK

Eginiko azterketatik, honakoak dira nabarmentzekoak:

- Formazio guztiek legezko epean (uztailaren 24a) bete dute beren hauteskunde-kontabilitatea Kontuen Ganberari aurkezteko betebeharra.

- Aurkeztutako hauteskunde-kontabilitateak, kontabilitate-irizpideei jarraituz, funtsean, honako kontabilitate-liburuetan jasotzen dira: egunerokoa eta kontabilitate-liburu nagusia. UPN eta Podemos-Ahal Dugu dira kontuak Hauteskunde Araubide Orokorraren 5/1985 Legeko 130. artikulua aipatzen dituen gastu-kontzeptuen arabera aurkeztu dituzten bakarrak.

Hala eta guztiz ere, kasu guztietan informazio zehatza eduki dugu, kasuko kontabilitate-birsailkapenak egiteko.

- Alderdi guztiek bete dituzte indarreko arauetan hauteskunde-gasturako eta publizitate-gasturako ezarritako mugak.

- Gastu orokorre dagokienez, UPNk eta EH Bildu Nafarroak aurkeztutakoetan doikuntzak egin dira; halere, nahiz eta onartutako gastuak, gutxi bada ere, jaitsi diren Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoan jasotako gastu-kontzeptuei ez egokitzeagatik, aldaketa horiek ez dute eraginik diru-laguntzan, zeren eta gastuak hauteskunde-emaitzen bidez lortzen den diru-laguntza baino handiagoak baitira.

- Bidalketen ondoriozko gastuei dagokienez, beheranzko doikuntza bat egin da EH Bildu Nafarroa formazioa aurkeztutakoetan, gastu horiek udal hauteskunde prozesukoak izateagatik; halere, horrek ez du eraginik diru-laguntzan, gastuak handiagoak baitira kontzeptu horrengatik diru-laguntza gisa jaso beharreko kopurua baino.

- Alderdi guztiek adierazi dute nondik datozen funtsak, alderdiek emandako diruari dagokienez, Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoaren 126.3. artikuluan ezartzen den moduan.

- Oro har, aurkeztutako fakturei eta justifikazioei dagokienez, esan beharra daukagu orokorrean gastuak zuzen justifikatuta daudela eta hauteskunde-jatorrikoak direla. Hala ere, gastuak eta hauteskunde-mugak zehazteko, Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoaren 130. artikuluan ezartzen den moduan, bidalitako gastuak birsailkatu behar izan ditugu.

- Inongo formaziok, Geroa Baik izan ezik, ez du gastuen inolako banaketarik egin hauteskunde autonomikoen eta udal hauteskunde prozesuetan aurkeztutako fakturretan. Hori dela eta, Ganbera honek uste du aurkeztutako gastuaren guztizkoa hauteskunde autonomikoei dagokiela.

- Eragiketa horiek ganbera honi jakinarazteko betebeharra duten hirugarren guztiek bete dute informazioa emateko betebeharrak hori, Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoaren 133. artikuluari jarraikiz, EH Bilduren eta Geroa Bairen hornitzaile banaren kasuetan izan ezik.

Egungo araudiak Kontuen Ganberari hauteskunderen arauzkotasuna dela-eta esleitu zaion kontrola hobetze aldera, *gomentatzen dugu kontabilitatea aurkeztea 5/1985 Legeko 130. artikulua aipatzen dituen gastu-kontzeptuen arabera sailkatuta.*

IV.3. FORMAIZIO POLITIKOEK EGINDAKO GASTUEN ETA JASOTAKO DIRU-LAGUNTZEN LABURPENA

Txosten honetako V. atalean islatutako emaitzen arabera, kontuan hartuta gastuen legezko mugak eta gehieneko diru-laguntzak eserleku bakoitzeko eta boto kopuruaren arabera, ondoko taulan formazio bakoitzaren gastuak eta jaso beharreko diru-laguntza bildu ditugu, eurotan adierazita.

Alderdia	UPN	Geroa Bai	Bildu	Podemos	SPN	PP	I-E	Guztira
Aurkeztutako gastuak, guztira	428.861	254.108	269.203	75.338	238.451	46.627	152.375	1.464.963
Onartutako gastuak, guztira	424.397	254.108	265.484	75.338	238.451	46.627	152.375	1.456.780
Jaso beharreko diru-laguntza, guztira	366.211	232.787	250.069*	75.338	238.451	36.325	115.432	1.314.612*
Finantzatua/onartuak (%)	86	92	94*	100	100	78	76	90*
1. aurrerapena (diru-laguntzaren % 30, 2011n jaso)	122.955	0	67.553	0	77.306	0	45.992	313.807
2. aurrerapena (2015eko hauteskunde emaitzen diru-laguntzaren % 45)	119.619	70.862	63.251	57.081	56.635	16.346	16.001	399.796
Kitatu gabea	123.637	161.925	119.264*	18.257	104.510	19.979	53.489	601.009*

(*) Kopuru horiek aldatu dira EH Bilduk aurkeztutako alegazioa partzialki onartu delako.

Nafarroako Parlamentuan ordezkari izatea lortu duten alderdi politikoei aurkeztu dituzten hauteskunde-gastuek 1.464.963 euro egiten dute, guztira; horietatik, 1.456.780 euro (ehuneko 99) onartzen dira.

Onartutako gastu horiek Nafarroako Gobernuak diruz laguntzen ditu 1.314.612 euroekin; hau da, guztizkoaren ehuneko 90. Alderdiak ekarpenak jasotzen dituzte hauteskundeetako emaitzen eta bidalketa zuzenaren gastu egiaztatuaren arabera.

Kontuei buruzko xehetasunak txosten honen eranskinean agertzen dira.

V. AURKEZTUTAKO HAUTESKUNDE-KONTABILITATEEN ERREGULARTASUNA

Ondoren, formazio politiko bakoitzak egindako lanaren xehetasunak erakutsiko ditugu.

Kontuan hartu beharra dago Unión del Pueblo Navarrok eta Podemos-Ahal Duguk beste inork ez dituela gastuak aurkeztu Hauteskunde Araubide Orokorren Lege Organikoko 130. artikularen arabera sailkatuta. Kasu hauetan, gastuen laburpen-taulan aitortutako gastuen zerrenda ematen dugu, formazio bakoitzak egin duen sailkapenaren arabera, bai eta Ganberak proposatzen duen gastu-birsailkapena ere.

Gainerako formazioetarako, gastuak araudiaren arabera sailkatu ez direnez, zuzenean gastuen guztizkoaren laburpen-taula bat erakusten dugu, bai eta egin dugun sailkapena ere, araudiaren kontzeptuen arabera.

Halaber, formazio bakoitzari dagozkion diru-laguntzei buruzko tauletan, Nafarroako Gobernuaren 2015eko abuztuaren 28ko Erabakiaz onetsitako aurrerakinak jaso ditugu, nahiz eta aurrerakin horiek ez diren ageri formazio politikoek aurkeztutako kontabilitateetan.

V.1. UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

Eskatutako informazio guztia duen kontabilitatea aurkeztu du formazio politikoak, horren barne dela gastuen laburpeneko egoera-orri bat, Hauteskunde Araubide Orokorren Lege Organikoko 130. artikuluan hauteskunde-gastuak direla-eta ezarritako sailkapenari jarraituz.

Diru-sarreraren eta gastuen guztizkoak 429.955 eta 424.397 izan dira, hurrenez hurren. Hona xehetasunak:

- Hauteskundeetako diru-sarrerak. Zuzen justifikatu dira eta honela xehakatzen dira:

Alderdiaren ekarpenak	307.000
Nafarroako Gobernuaren 1. aurrerakina	122.955
Guztira	429.955

Nafarroako Gobernuak 119.619 euroko bigarren aurrerakin bat eman du, gehieneko diru-laguntzaren zenbatekoaren ehuneko 45 egiten duena, 2015eko abuztuaren 28ko Erabakiaren bidez. Erabaki hori kontabilitatea igorri ondoren hartu zen.

- Hauteskundeetako gastuak. Hona hemen Hauteskunde Araubide Orokorren Lege Organikoko 130. artikuluko kontzeptuen arabera xehakatzea:

Gastuak kontzeptuen arabera	Aurkeztuak	Birsailkatuak	Onartuak	Aldea
Hauteskundeetako gutun-azalak eta boto-paperak egitea.	0	0	0	-
Propaganda eta publizitatea	211.671,82	212.541,92	212.541,92	-
Hauteskunde kanpainako ekintzak egiteko lokalak alokatzea	73.157,94	75.382,94	70.919,64	-4.463,30
Aldi baterako langileentzako ordainketak	0	0	0	-
Garraioaren eta joan-etorrien gastuak	14.038,47	12.935,03	12.935,03	-
Posta eta zigiluak	0	0	0	-
Maileguen korrituak	0	0	0	-
Hauteskundeetarako beharrezkoak diren beste gastu batzuk	29.601,36	27.609,70	27.609,70	-
Gastu arruntak, guztira	328.469,59	328.469,59	324.006,29	-4.463,30
Zuzeneko bidalketaren gastuak, guztira	100.391,06	100.391,06	100.391,06	-
Gastuak, guztira	428.860,65	428.860,65	424.397,35	-4.463,30

Gastu horiek aztertuta, hona azpimarratzen ditugunak:

a) Oro har, aurkeztutako gastuak zuzen justifikaturik daude eta hauteskondeekin lotutakoak dira. Gastuen kontzeptuen arabera aurkezpenean birsailkapen bat egin dugu, legeak ezarritako mugak aplikatzen direla egiaztatze aldera.

Onartu ez diren gastuak lau fakturari dagozkie: kopuru txikikoak dira eta haien kontzeptuak ez daude jasota Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoko 130. artikuluan. Aurkeztutako gastuek alderdiak hauteskunde emaitzengatik jaso dezakeen gehieneko diru-laguntza gainditzen dutenez, egitate horrek ez du eraginik jaso beharreko kopuruan.

b) Ez dira gainditu hauteskunde-gastuen eta komunikabide pribatuen publizitate-gastuen kontzeptuetarako ezarritako legezko mugak.

c) Aurkeztutako gastu arruntek hauteskunde-emaitzengatik eman daitekeen diru-laguntzaren zenbatekoa gainditzen dute. Hauteskunde-propaganda igortzeko gastuek ez dituzte gainditzen kontzeptu horretarako diru-laguntzetan ezarritako gehieneko muga; hori dela eta, kopurua gastu errearen arabera egokitu beharko da.

d) Aurkeztutako fakturetatik bakarrean ere ez da zehazten kasuko gastua udal hauteskondeekin partekatutakoa denik; hori dela eta, jotzen dugu guztiak eskusiboki hauteskunde autonomikoekin daudela lotuta.

- Hirugarrenen betebeharrak

10.000 euro baino gehiago fakturatu dituzten bost enpresa identifikatuek horren berri Kontuen Ganberari jakinarazteko betebeharra bete dute, Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikokoaren 133. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

- Proposamena

Kontuen Ganberak erabaki du Nafarroako Parlamenturako hauteskondeei buruzko 16/1986 Foru Legeko 47. artikuluan jasota dagoen eta lortu den diru-laguntza ukatzeko edo gutxitzeko proposamenik ez egitea.

Horrenbestez, honakoak dira Unión del Pueblo Navarro formazioari dagozkion diru-laguntzak:

Diru-laguntza	Diru-laguntza teorikoa	Onartutako gastua	Dagokion diru-laguntza
Hauteskundeetako emaitzengatik	265.819,75	324.006,29	265.819,75
Propaganda bidaltzeagatik	114.921,84	100.391,06	100.391,06
Diru-laguntza, guztira	380.741,59	424.397,35	366.210,81
- Nafarroako Gobernuaren aurrerakina (% 30)			(122.955,47)
- Nafarroako Gobernuaren aurrerakina (% 45)			(119.618,89)
Ordaintzeko dagoen diru-laguntza, guztira			123.636,45

V.2. GEROA BAI

Geroa Baik aurkeztutako kontabilitateak ez ditu jasotzen eskatutako berriazko informazio-betekizun guztiak; halaber, gastuak direla-eta aurkeztutako laburpeneko egoera-orrian gastu horiek ez daude sailkatuta Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoko 130. artikuluan ezarritakoaren arabera. Hala eta guztiz ere, aurkeztutako datu eta ziurtagiriek aukera eman digute egin beharreko konprobazio eta egiaztaketa guztiak egiteko.

Hauteskundeak direla-eta aurkeztutako diru-sarreraren eta gastuen guztizkoak 285.000 eta 254.108 izan dira, hurrenez hurren. Hona zenbateko horien xehetasunak.

- Hauteskundeetako diru-sarrerak. Diru-sarrera guztiak zuzen justifikatuta daude. Hurrengo taulan ageri da haien xehakitzea.

Zorpetzea	235.000
Alderdiaren ekarpena	50.000
Guztira	285.000

Zorpetzea kopuru berdina (117.500 euro) duten bi maileguk osatzen dute, bi entitate desberdinetatik hartuak.

Nafarroako Gobernuak 70.862 euroko aurrerakin bat eman du, gehieneko diru-laguntzaren zenbatekoaren ehuneko 45 egiten duena, 2015eko abuztuaren 28ko Erabakiaren bidez. Erabaki hori kontabilitatea igorri ondoren hartu zen.

- Hauteskundeetako gastuak. Hona hemen Hauteskunde Araubide Orokorren Lege Organoaren 130. artikuluko kontzeptuen arabera xehakitzea:

Gastuak kontzeptuen arabera	Aurkeztuak eta sailkatuak	Onartuak	Aldea
Hauteskundeetako gutun-azalak eta boto-paperak egitea.	0	0	-
Propaganda eta publizitatea	97.244,18	97.244,18	-
Hauteskunde kanpainako ekintzak egiteko lokalak alokatzea	0	0	-
Aldi baterako langileentzako ordainketak	0	0	-
Garraioaren eta joan-etorrien gastuak	0	0	-
Posta eta zigiluak	0	0	-
Maileguen korrituak	0	0	-
Hauteskundeetarako beharrezkoak diren beste gastu batzuk	81.549,34	81.549,34	-
Gastu arruntak, guztira	178.793,52	178.793,52	-
Zuzeneko bidalketaren gastuak, guztira	75.314,89	75.314,89	-
Gastuak, guztira	254.108,41	254.108,41	-

Gastu horiek aztertuta, hona azpimarratzen ditugunak:

a) Oro har, aurkeztutako gastuak zuzen justifikaturik daude eta hauteskundeekin lotutakoak dira. Gastuen kontzeptuen arabera aurkezpenean birsailkapen bat egin dugu, legeak ezarritako mugak aplikatzen direla egiaztatze aldera.

b) Ez dira gaitu hauteskunde-gastuen eta komunikabide pribatuen publizitate-gastuen kontzeptuetarako ezarritako legezko mugak.

c) Gastu arrunt horien zenbatekoak ez du gaitzen hauteskunde-emaizengatik diru-laguntzaren gehieneko kopurua. Hauteskunde-propaganda igortzeko gastuek ez dituzte gaitzen kontzeptu horretarako diru-laguntzetan ezarritako gehieneko muga; hori dela eta, diru-laguntzaren zenbatekoa gastu errealarari egokitu behar zaio.

d) Udaletarako hauteskunde-prozesuari eta prozesu autonomikoari dagozkien fakturak aurkeztu dira, azken horri zein dagozkion adierazita.

- Hirugarrenen betebeharrak

Bai kredituak eman dituzten finantza-entitateek bai kanpainako eragiketak direla-eta 10.000 euro baino gehiago fakturatu dituzten lau hornitzaile identifikatuetatik hiruk, bete egin dute Kontuen Ganberari informazioak jakinarazteko betebeharra, Hauteskunde Araubide Orokorren 133. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

- Proposamena

Kontuen Ganberak erabaki du Nafarroako Parlamenturako hauteskunderi buruzko 16/1986 Foru Legeko 47. artikuluan jasota dagoen eta lortu den diru-laguntza ukatzeko edo gutxitzeko proposamenik ez egitea.

Horrenbestez, honakoak dira Geroa Bai formazioak jaso beharreko diru-laguntzak:

Diru-laguntza	Diru-laguntza teorikoa	Onartutako gastua	Dagokion diru-laguntza
Hauteskundeetako emaitzengatik	157.472,15	178.793,52	157.472,15
Propaganda bidaltzeagatik	114.742,56	75.314,89	75.314,89
Diru-laguntza, guztira	272.214,71	254.108,41	232.787,04
- Nafarroako Gobernuaren aurrerakina (% 45)			(70.862,47)
Ordaintzeko dagoen diru-laguntza, guztira			161.924,57

V.3. EH BILDU NAFARROA

Eskatutako informazio guztia aurkeztu du EH Bildu Nafarroa formazioak, salbu eta Hauteskunde Araubide Orokorren Lege Organikoko 130. artikuluan ezarritakoaren arabera sailkatutako gastuen laburpeneko egoera-orria. Hala eta guztiz ere, ziurtagiri guztiak aurkeztu ditu. Hori dela eta, behar ziren egiaztaketa guztiak egin ahal izan ditugu.

Ganbera honi aurkeztutako hauteskundeetarako diru-sarrerara eta gastuak 263.054 eta 269.203 eurokoak izan dira, hurrenez hurren, ondoren ematen dugun xehakatzearen arabera:

- Hauteskundeetako diru-sarrerak. Zuzen egiaztatu ondoren, honako hauek dira xehetasunak:

Alderdien ekarpena	195.500,00
Nafarroako Gobernuaren lehen aurrerakina	67.553,55
Guztira	263.053,55

Alderdien ekarpena 70.000 eurokoa da: Coalición Los Pueblos Deciden delakotik 60.000 euro heldu dira eta gainerakoa, 35.500 euro, EH Buldutik bertatik.

Nafarroako Gobernuak 63.251 euroko bigarren aurrerakin bat eman du, gehieneko diru-laguntzaren zenbatekoaren ehuneko 45 egiten duena, 2015eko abuztuaren 28ko Erabakiaren bidez. Erabaki hori kontabilitatea igorri ondoren hartu zen.

- Hauteskundeetako gastuak. Hona hemen Hauteskunde Araubide Orokorren Lege Organikoren 130. artikuluko kontzeptuen arabeko xehakatzeara:

Gastuak kontzeptuen arabera	Aurkeztuak eta sailkatuak	Onartuak	Aldea
Hauteskundeetako gutun-azalak eta boto-paperak egitea.	0	0	-
Propaganda eta publizitatea	142.097,32	142.097,32	-
Hauteskunde kanpainako ekintzak egiteko lokalak alokatzea	3.178,00	1.000,00	-2.178,00
Aldi baterako langileentzako ordainketak	0	0	-
Garraioaren eta joan-etorrien gastuak	0	0	-
Posta eta zigiluak	0	0	-
Maileguen korrituak	0	0	-
Hauteskundeetarako beharrezkoak diren beste gastu batzuk	0	0	-
Gastu arruntak, guztira	145.275,32	143.097,32	-
Zuzeneko bidalketaren gastuak, guztira	123.928,16	122.386,79	-1.541,37
Gastuak, guztira	269.203,48	265.484,11	-3.719,37

Gastu horiek aztertuta, hona azpimarratzen ditugunak:

a) Oro har, aurkeztutako gastuak zuzen justifikaturik daude eta hauteskundeekin lotutakoak dira. Gastuen kontzeptuen arabeko aurkezpenean birsailkapen bat egin dugu, legeak ezarritako mugak aplikatzen direla egiaztatze aldera.

Onartu ez diren gastuak honakoei dagozkie: koalizioaren egoitzaren ohiko alokairua eta udal hauteskunderi dagozkien bidalketa gastuen faktura bat.

b) Ez dira gainditu hauteskunde-gastuen eta komunikabide pribatuen publizitate-gastuen kontzeptuetarako ezarritako legezko mugak.

c) Aurkeztutako gastuek bai hauteskunde-emaitzen ondoriozko diru-laguntzaren zenbatekoa, bai bidalketarako gainditzen dituzte.

d) Aurkeztutako fakturretatik bakarrean ere ez da zehazten kasuko gastua udal hauteskunderi partekatutakoa denik; hori dela eta, jotzen dugu guztiak soilik hauteskunde autonomikoekin daudela lotuta.

- Hirugarrenen betebeharrak

10.000 euro baino gehiago fakturatu dituzten zazpi hornitzaile identifikatuetatik seik bete egin dute informazioak Kontuen Ganberari jakinarazteko betebeharra, Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoaren 133. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

- Proposamena

Kontuen Ganberak erabaki du Nafarroako Parlamenturako hauteskunderi buruzko 16/1986 Foru Legeko 47. artikuluan jasota dagoen eta lortu den diru-laguntza ukatzeko edo gutxitzeko proposamenik ez egitea.

Horrenbestez, honakoak dira koalizioak jaso beharreko diru-laguntzak:

Diru-laguntza	Diru-laguntza teorikoa	Onartutako gastua	Dagokion diru-laguntza
Hauteskundeetako emaitzengatik	140.557,70	143.097,32	140.557,70
Propaganda bidaltzeagatik	109.511,52*	122.386,79	109.511,52*
Diru-laguntza, guztira	250.069,22*	265.484,11	250.069,22*
- Nafarroako Gobernuaren aurrerakina (% 30)			(67.553,55)
- Nafarroako Gobernuaren aurrerakina (% 45)			(63.250,97)
Ordaintzeko dagoen diru-laguntza, guztira			119.264,71*

(*) Kopuru horiek aldatu dira EH Bilduk aurkeztutako alegazioa partzialki onartu delako.

V.4. PODEMOS-AHAL DUGU

Podemos-Ahal Dugu formazioak eskatutako informazioaren araberrako kontabilitatea aurkeztu digu, bai eta Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoko 130. artikuluan ezarritako kontabilitate-kontzeptuen araberrako gastuen laburpeneko egoera-orria ere.

Ganbera honi aurkeztutako hauteskundeetako diru-sarrerak eta gastuak 54.172 eta 75.338 eurokoak dira, hurrenez hurren. Hona xehetasunak:

- Hauteskundeetako diru-sarrerak zuzen justifikatu dira. Honako hau da diru-sarreraren xehakatzea:

Partikularren ekarpena	36.000,00
Alderdiaren ekarpena	18.172,34
Guztira	54.172,34

Partikularren ekarpenak guztira 190 pertsonak egin zituzten, eta ekarpen horien zenbatekoak ez du inongo kasutan ere araudian ezarritakoa gainditzen.

Nafarroako Gobernuak 57.081 euroko aurrerakin bat eman du, gehieneko diru-laguntzaren zenbatekoaren ehuneko 45 egiten duena, 2015eko abuztuaren 28ko Erabakiaren bidez. Erabaki hori kontabilitatea igorri ondoren hartu zen.

- Hauteskundeetako gastuak. Honako hauek dira Hauteskunde Araubide Orokorren Lege Organikoko 130. artikuluko kontzeptuen arabera antolatutako gastuak:

Gastuak kontzeptuen arabera	Aurkeztuak	Birsailkatuak	Onartuak	Aldea
Hauteskundeetako gutun-azalak eta boto-paperak egitea.	181,50	0	0	-181,50
Propaganda eta publizitatea	27.996,55	27.996,55	27.996,55	-
Hauteskunde kanpainako ekintzak egiteko lokalak alokatzea	3.619,85	3.619,85	3.619,85	-
Aldi baterako langileentzako ordainketak	20.972,89	20.972,89	20.972,89	-
Garraioaren eta joan-etorrien gastuak	2.073,64	2.073,64	2.073,64	-
Posta eta zigiluak	1.642,24	0	0	-1.642,24
Maileguen korrituak	256,00	0	0	-256,00
Hauteskundeetarako beharrezkoak diren beste gastu batzuk	18.595,08	18.851,08	18.851,08	256,00
Gastu arruntak, guztira	75.337,75	73.514,01	73.514,01	-1.823,74
Zuzeneko bidalketaren gastuak, guztira	0	1.823,74	1.823,74	1.823,74
Gastuak, guztira	75.337,75	75.337,75	75.337,75	0

Gastu horiek aztertuta, hona azpimarratzen ditugunak:

a) Oro har, aurkeztutako gastuak zuzen justifikatuta daude eta hauteskundeekin lotutakoak dira, eta guztiak onartu dira. Gastuen kontzeptuen arabera aurkezpenean birsailkapen bat egin dugu, legeak ezarritako mugak aplikatzen direla egiaztatze aldera.

b) Ez dira gauditu hauteskunde-gastuen eta komunikabide pribatuen publizitate-gastuen kontzeptuetarako ezarritako legezko mugak.

c) Ez hauteskunde-propagandaren bidalketa-gastuek, ez gastu arruntek ez dute gauditzen diru-laguntzen bidez jaso daitekeen gehieneko muga; horrenbestez, formazioaren gastu errealei doitu beharko zaizkie.

d) Kasu honetan, formazioak ez zuen parte hartu udal hauteskundeetan; hori dela eta, logikoa denez, faktura guztiak hauteskunde autonomikoenak dira.

- Hirugarrenen betebeharrak

Kanpainako eragiketak direla-eta 10.000 euro baino gehiago fakturatu duen enpresa bakarrak bete du Kontuen Ganberari inguruabar hori jakinarazteko betebeharra, Hauteskunde Araubide Orokorren Lege Organikoko 133. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

- Proposamena

Kontuen Ganberak erabaki du Nafarroako Parlamenturako hauteskudeei buruzko 16/1986 Foru Legeko 47. artikuluan jasota dagoen eta lortu den diru-laguntza ukatzeko edo gutxitzeko proposamenik ez egitea.

Horrenbestez, honakoak dira Podemos-Ahal Dugu formazioari dagozkion diru-laguntzak:

Diru-laguntza	Diru-laguntza teorikoa	Onartutako gastua	Dagokion diru-laguntza
Hauteskundeetako emaitzengatik	126.846,65	73.514,01	73.514,01
Propaganda bidaltzeagatik	65.689,68	1.823,74	1.823,74
Diru-laguntza, guztira	192.536,33	75.337,75	75.337,75
- Nafarroako Gobernuaren aurrerakina (% 45)			(57.080,99)
Ordaintzeko dagoen diru-laguntza, guztira			18.256,76

V.5. NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA

Eskatutako informazio guztia aurkeztu du Nafarroako Alderdi Sozialistak, salbu eta Hauteskunde Araubide Orokorren Lege Organikoko 130. artikuluan ezarritakoaren arabera sailkatutako gastuen laburpeneko egoera-orria. Hala eta guztiz ere, aurkeztutako ziurtagiriek aukera eman digute egin beharreko egiaztaketa guztiak egiteko.

Formazio honek aurkeztutako hauteskundeetako diru-sarreraren eta gastuen guztizkoak 237.391 eta 238.451 euro dira, hurrenez hurren. Ondotik ematen ditugu haiei buruzko xehetasunak:

- Hauteskundeko diru-sarrerak. Honakoa da zuzen justifikatu diren diru-sarreraren xehakatzea:

Zorpetzea	140.000,00
Nafarroako Gobernuaren aurrerakina	77.306,03
Alderdiaren ekarpena	20.085,12
Diru-sarrerak, guztira	237.391,15

Nafarroako Gobernuak 56.635 euroko aurrerakin bat eman du, gehieneko diru-laguntzaren zenbatekoaren ehuneko 45 egiten duena, 2015eko abuztuaren 28ko Erabakiaren bidez. Erabaki hori kontabilitatea igorri ondoren hartu zen.

- Hauteskundeetako gastuak. Hona hemen Hauteskunde Araubide Orokorren Lege Organikoko 130. artikuluko kontzeptuen arabeko xehakatzea:

Gastuak kontzeptuen arabera	Aurkeztuak eta sailkatuak	Onartuak	Aldea
Hauteskundeetako gutun-azalak eta boto-paperak egitea.	0	0	-
Propaganda eta publizitatea	87.312,86	87.312,86	-
Hauteskunde kanpainako ekintzak egiteko lokalak alokatzea	1.502,82	1.502,82	-
Aldi baterako langileentzako ordainketak	0	0	-
Garraioaren eta joan-etorrien gastuak	18.003,86	18.003,86	-
Posta eta zigiluak	0	0	-
Maileguen korrituak	1.240,00	1.240,00	-
Hauteskundeetarako beharrezkoak diren beste gastu batzuk	15.659,02	15.659,02	-
Gastu arruntak, guztira	123.718,56	123.718,56	-
Zuzeneko bidalketaren gastuak, guztira	114.732,42	114.732,42	-
Gastuak, guztira	238.450,98	238.450,98	-

Gastu horiek aztertuta, hona azpimarratzen ditugunak:

a) Oro har, aurkeztutako gastuak zuzen justifikatuta daude eta hauteskundeekin lotutakoak dira. Gastuen kontzeptuen arabeko aurkezpenean haien sailkapen bat egin dugu, legeak ezarritako mugak aplikatzen direla egiaztatze aldera.

b) Ez dira gainditu hauteskunde-gastuen eta komunikabide pribatuen publizitate-gastuen kontzeptuetarako ezarritako legezko mugak.

c) Bai hauteskunde-propagandaren bidalketa-gastuek, bai gastu arruntek ez dute gainditzen diru-laguntzen bidez jaso daitekeen gehieneko muga; horrenbestez, formazioaren gastu errealei doitu beharko zaizkie.

d) Aurkeztutako fakturetatik bakarrean ere ez da zehazten kasuko gastua udal hauteskundeekin partekatutakoa denik; hori dela eta, jotzen dugu guztiak soilik hauteskunde autonomikoekin daudela lotuta.

- Hirugarrenen betebeharrak

10.000 euro baino gehiago fakturatu dituzten lau enpresa identifikatuek horren berri Kontuen Ganberari jakinarazteko betebeharra bete dute, Hauteskunde Araubide Orokorren Lege Organikoaren 133. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

- Proposamena

Kontuen Ganberak erabaki du Nafarroako Parlamenturako hauteskunderi buruzko 16/1986 Foru Legeko 47. artikuluan jasota dagoen eta lortu den diru-laguntza ukatzeko edo gutxitzeko proposamenik ez egitea.

Horrenbestez, honakoak dira formazioak jaso beharreko diru-laguntzak:

Diru-laguntza	Diru-laguntza teorikoa	Onartutako gastua	Dagokion diru-laguntza
Hauteskundeetako emaitzengatik	125.855,80	123.718,56	123.718,56
Propaganda bidaltzeagatik	114.742,56	114.732,42	114.732,42
Diru-laguntza, guztira	240.598,36	238.450,98	238.450,98
- Nafarroako Gobernuaren aurrerakina (% 30)			(77.306,03)
- Nafarroako Gobernuaren aurrerakina (% 45)			(56.635,11)
Ordaintzeko dagoen diru-laguntza, guztira			104.509,84

V.6. ALDERDI POPULARRA

Eskatutako informazio guztia aurkeztu du Alderdi Popularrak, salbu eta Hauteskunde Araubide Orokorren Lege Organikoko 130. artikuluan ezarritakoaren arabera sailkatutako gastuen laburpeneko egoera-orria. Hala eta guztiz ere, aurkeztutako ziurtagiriek aukera eman digute egin beharreko egiaztaketa guztiak egiteko.

Ganbera honi aurkeztutako hauteskundeetako diru-sarreraren eta gastuen guztizkoak 46.630 eta 46.627 eurokoak izan dira, hurrenez hurren. Hona xehetasunak:

- Hauteskundeetako diru-sarrerak. 46.630 euroko guztizko kopurua, zuzen justifikatutakoa, alderdiaren ekarpenei dagokie.

Formazio politiko honek, nahiz eta horretarako aukera bazuen, ez zuen eskatu Nafarroako Gobernuaren ehuneko 30eko aurrerakina, hauteskundeak egin baino lehenagokoa.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak 16.346 euroko aurrerakin bat eman du, gehieneko diru-laguntzaren zenbatekoaren ehuneko 45 egiten duena, 2015eko abuztuaren 28ko Erabakiaren bidez. Erabaki hori kontabilitatea igorri ondoren hartu zen.

- Hauteskundeetako gastuak. Honako hau da gastu horien osaera, dira Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoko 130. artikuluko kontzeptuen arabera sailkatuta.

Gastuak kontzeptuen arabera	Aurkeztuak eta sailkatuak	Onartuak	Aldea
Hauteskundeetako gutun-azalak eta boto-paperak egitea.	0	0	-
Propaganda eta publizitatea	20.264,49	20.264,49	-
Hauteskunde kanpainako ekintzak egiteko lokalak alokatzea	1.397,55	1.397,55	-
Aldi baterako langileentzako ordainketak	0	0	-
Garraioaren eta joan-etorrien gastuak	0	0	-
Posta eta zigiluak	0	0	-
Maileguen korrituak	0	0	-
Hauteskundeetarako beharrezkoak diren beste gastu batzuk	24.964,72	24.964,72	-
Gastu arruntak, guztira	46.626,76	46.626,76	-
Zuzeneko bidalketaren gastuak, guztira	0	0	-
Gastuak, guztira	46.626,76	46.626,76	-

Gastu horiek aztertuta, hona azpimarratzen ditugunak:

a) Oro har, aurkeztutako gastuak zuzen justifikaturik daude eta hauteskondeekin lotutakoak dira. Gastuen kontzeptuen arabera aurkezpenean haien sailkapen bat egin dugu, legeak ezarritako mugak aplikatzen direla egiaztatze aldera.

b) Ez dira gauditu hauteskunde-gastuen eta komunikabide pribatuen publizitate-gastuen kontzeptuetarako ezarritako legezko mugak.

c) Gastu arruntek diru-laguntzen bidez lor daitekeen gehieneko muga gauditzen dute; ez dira bidalketengatik gastuak igorri.

d) Aurkeztutako fakturretatik bakarrean ere ez da zehazten kasuko gastua udal hauteskondeekin partekatutakoa denik; hori dela eta, jotzen dugu guztiak soilik hauteskunde autonomikoekin daudela lotuta.

- Hirugarrenen betebeharrak

Kanpaina-eragiketengatik 10.000 euro baino gehiago fakturatu duen enpresa bakarrak bete egin du Kontuen Ganberari jakinarazteko betebeharra, Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoaren 133. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

- Proposamena

Kontuen Ganberak erabaki du Nafarroako Parlamenturako hauteskondeei buruzko 16/1986 Foru Legeko 47. artikuluan jasota dagoen eta lortu den diru-laguntza ukatzeko edo gutxitzeko proposamenik ez egitea.

Horrenbestez, honakoa da formazioak jaso beharreko diru-laguntza:

Diru-laguntza	Diru-laguntza teorikoa	Onartutako gastua	Dagokion diru-laguntza
Hauteskundeetako emaitzengatik	36.324,55	46.626,76	36.324,55
Propaganda bidaltzeagatik	-	-	-
Diru-laguntza, guztira	36.324,55	46.626,76	36.324,55
- Nafarroako Gobernuaren aurrerakina (% 45)			(16.346,05)
Ordaintzeko dagoen diru-laguntza, guztira			19.978,50

V.7. IZQUIERDA-EZKERRA

Eskatutako datu guztiak aurkeztu ditu Izquierda-Ezkerra Koalizioak, salbu eta gastuen Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoko 130. artikuluan ezarritakoaren arabera sailkapena. Hala eta guztiz ere, aurkeztutako ziurtagiriek aukera eman digute egin beharreko egiaztaketa guztiak egiteko.

Ganbera honi aurkeztutako hauteskundeetarako diru-sarrera eta gastuak 118.666 eta 152.375 eurokoak izan dira, hurrenez hurren. Honako hauek dira xehetasunak:

- Hauteskundeetako diru-sarrerak. Honakoa da zuzen justifikatu diren diru-sarreraren xehaketa:

Alderdien ekarpena	68.627,54
Nafarroako Gobernuaren lehen aurrerakina	45.992,29
Partikularren ekarpena	4.406,58
Guztira	118.666,41

Partikularren ekarpena hamar pertsonen egindakoa da.

Honako hau da alderdien ekarpena: koalizioak berak jarritako 37.000 euroko kopurua; Izquierda-Ezkerraren 25.000 euro, eta Batzarre-Asamblea de Izquierdasen 6.627,54 euro.

Nafarroako Gobernuak 16.001 euroko bigarren aurrerakin bat eman du, gehieneko diru-laguntzaren zenbatekoaren ehuneko 45 egiten duena, 2015eko abuztuaren 28ko Erabakiaren bidez. Erabaki hori kontabilitatea igorri ondoren hartu zen.

- Hauteskunde-gastuak. Honako hauek dira gastu-kontzeptu horien xehetasunak, Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoko 130. artikuluari jarraituz.

Gastuak kontzeptuen arabera	Aurkeztuak eta sailkatuak	Onartuak	Aldea
Hauteskundeetako gutun-azalak eta boto-paperak egitea.	0	0	-
Propaganda eta publizitatea	15.251,93	15.251,93	-
Hauteskunde kanpainako ekintzak egiteko lokalak alokatzea	3.619,24	3.619,24	-
Aldi baterako langileentzako ordainketak	0	0	-
Garraioaren eta joan-etorrien gastuak	6.365,61	6.365,61	-
Posta eta zigiluak	0	0	-
Mailleguen korrituak	0	0	-
Hauteskundeetarako beharrezkoak diren beste gastu batzuk	47.264,11	47.264,11	-
Gastu arruntak, guztira	72.500,89	72.500,89	-
Zuzeneko bidalketaren gastuak, guztira	79.874,05	79.874,05	-
Gastuak, guztira	152.374,94	152.374,94	-

Gastu horiek aztertuta, hona azpimarratzen ditugunak:

a) Oro har, aurkeztutako gastuak zuzen justifikaturik daude eta hauteskundeekin lotutakoak dira. Gastuen kontzeptuen arabera aurkezpenean haien sailkapen bat egin dugu, legeak ezarritako mugak aplikatzen direla egiaztatze aldera.

b) Ez dira gauditu hauteskunde-gastuen eta komunikabide pribatuen publizitate-gastuen kontzeptuetarako ezarritako legeko mugak.

c) Gastu arruntek diru-laguntzen bidez jaso daitezkeen gehieneko muga gauditzen dute; bestetik, hauteskunde-propaganda igortzeko gastuak ez dute gauditzen kontzeptu horretarako diru-laguntzetan ezarritako gehieneko muga; hori dela eta, kopurua gastu errearen arabera egokitu beharko da.

d) Aurkeztutako fakturretatik bakarrean ere ez da zehazten kasuko gastua udal hauteskunderen partekatutakoa denik; hori dela eta, jotzen dugu guztiak soilik hauteskunde autonomikoekin daudela lotuta.

- Hirugarrenen betebeharrak

Kanpainako eragiketak direla-eta 10.000 euro baino gehiago fakturatu dituzten lau enpresek, bete dute Kontuen Ganberari jakinarazteko betebeharra, Hauteskunde Araubide Orokorren Lege Organikoaren 133. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

- Proposamena

Kontuen Ganberak erabaki du Nafarroako Parlamenturako hauteskunderen buruzko 16/1986 Foru Legeko 47. artikuluan jasota dagoen eta lortu den diru-laguntza ukatzeko edo gutxitzeko proposamenik ez egitea.

Horrenbestez, honakoak dira Izquierda-Ezkerra koalizioak jaso beharreko diru-laguntzak:

Diru-laguntza	Diru-laguntza teorikoa	Onartutako gastua	Dagokion diru-laguntza
Hauteskundeetako emaitzengatik	35.557,90	72.500,89	35.557,90
Propaganda bidaltzeagatik	114.742,56	79.874,05	79.874,05
Diru-laguntza, guztira	150.300,46	152.374,94	115.431,95
- Nafarroako Gobernuaren aurrerakina (% 30)			(45.992,29)
- Nafarroako Gobernuaren aurrerakina (% 45)			(16.001,06)
Ordaintzeko dagoen diru-laguntza, guztira			53.438,60

Txosten hau auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2015eko irailaren 18an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

20

ERANSKINA. EGINDAKO LANARI BURUZKO AMAIERAKO LABURPEN-TAULA

ALDERDIAK	UPN	GEROA BAI	BILDU	PODEMOS	SPN	PP	I-E	DIRU-SARRERAK
Eserleku kopurua	15	9	8	7	7	2	2	50
Boto kopurua	92.705	53.497	48.166	46.207	45.164	13.289	12.482	311.510
Gastu arruntengaitko gehieneko diru-laguntza teorikoa	265.820	157.472	140.558	126.847	125.856	36.325	35.558	888.435
Bidalaketa kopurua	478.841	478.094	456.298*	273.707	478.094	0,00	478.094	
Egindako bidalketaren kopuruari buruzko gehieneko diru-laguntza teorikoa	114.922	114.743	109.512*	65.690	114.743	0	114.743	643.351*
	Aitorutakoak	Aitorutakoak	Aitorutakoak	Aitorutakoak	Aitorutakoak	Aitorutakoak	Aitorutakoak	
GASTU ARRUNTAK, GUZTIRA	328.470	178.794	145.275	73.514	123.719	46.627	69.349	959.105
ZUZENEKO BIDALKETAREN GASTUAK, GUZTIRA	100.391	75.315	123.928	1.824	114.732	0	83.026	497.675
ONARTUTAKO GASTUAK, GUZTIRA	428.861	254.108	269.203	75.338	238.451	46.627	152.375	1.456.780
Gastu arruntetarako diru-laguntza (gehieneko mugak aplikatuta)	265.820	157.472	140.558	73.514	123.719	36.325	35.558	832.965
Zuzeneko bidalketarako diru-laguntza (gehieneko mugak aplikatuta)	100.391	75.315	109.512*	1.824	114.732	0	83.026	481.648*
JASO BEHARRREKO DIRU-LAGUNTZA, GUZTIRA (gehieneko mugak aplikatuta)	366.211	232.787	250.069*	75.338	238.451	36.325	115.432	1.314.612*
1. aurrerakina (2011 in jasotako diru-laguntza osoaren % 30)	122.955		67.554	0	77.306	0	45.992	313.807
2. aurrerakina (2015eko hauteskunde-emaitzen gaitko mugaren % 45)	119.619	70.862	63.251	57.081	56.635	16.346	16.001	399.796
AURRERAKINAK, GUZTIRA	242.574	70.862	130.805	57.081	133.941	16.346	61.993	713.603
LIKIDATU BEHARRREKO GAINERAKOAK	123.636	161.925	119.265*	18.257	104.510	19.979	53.489	601.009*

GEHIENEO DIRU-LAGUNTZAK: eserleku bakoitzeko 11.850 €

Boto bakoitzeko: 0,95 €

Prentsan eta irratian eginko publizitatearen gastuak = 81.000 € (405.000ren %20) Bidalaketa kopurua: 0,24 euro (betiere, bidalketa kopuruak ez badu gairiduzen hautesle kopurua; hau da, 501.267)

2015eko hauteskundeetako gastuen eta diru-laguntzen laburpena

(*) Kopuru horiek aldatu dira EH Biduk aurkeztutako alegazioa partzialki onartu delako.

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Josefina Ibero Baraibarrek, 18192034-T zk.ko NANA duenak, Nafarroako Parlamenturako 2015eko maiatzaren 24ko hauteskundeetako EH BILDUren administratzaile nagusia naizen aldetik:

AZALTZEN DUT:

Nafarroako Parlamenturako hauteskunde-kontabilitateen arauzkotasunari buruzko behin-behineko fiskalizazio-txostena jaso dudala, eta behin hura aztertuta, honako hau aurkitu dugula, betiere ordezkatzeko dudako formazioari dagokionez:

– EH BILDU Federazioari onartu egiten zaizkio propaganda bidaltzeagatiko gastuak, 122.386,79 euro egiten dutenak.

– Kontzeptu horretarako gehieneko diru-laguntza 120.304,00 eurokoa da

– Federazioari emandako diru-laguntza 62.213,52 eurokoa da, zeren eta jotzen baita justifikatutako bidalketak 259.223 direla.

Inguruabar horiek direla eta,

ADIERAZTEN DUT:

Ordezkatzen dudako formazioak Correosekin kontratatuta zeukan hauteskunde-propaganda Nafarroako Komunitateko hauteskunde-eroldako pertsona guztiei bidaltzea.

EH BILDU FEDERAZIOAZ GUZTIZ KANPOKOAK DIREN ARRAZIOIAK TARTEKO, bidalketa hori ezin izan zen egin, zeren eta jo baitzen bidali beharreko boto-txartelak EZ ZIRELA ZUZENAK.

Ondoren, eta kontratatutako bidalketa egiteko denbora materialik gabe, hasiera batean boto-txartelak zuzenak ez zirela jo zuen organo berak HAIK ZUZENTZAT JO ZITUEN, BAINA EZIN IZAN ZEN BIDALKETA EGIN DENBORARIK EZ ZEGOELAKO.

Federazioak baliabide berekietara jo behar izan zuen, eta langileak eta bitartekoak kontratatu zituen banaketa egiteko. Gastu horiek HAUTESKUNDE-PROPANDA BIDALTZEKO GASTUTZAT aitortu ziren behin-behineko txostenean.

Halaber, Kontuen Epaitegiaren Osoko Bilkurak, 2015eko martxoaren 26an egindako bilkuran, instrukzio bat onetsi zuen, non zehazten baitzuen zein den formazio politikoek, hauteskunde-kontuak fiskalizatzeari begira, igorri behar duten dokumentazioa. Igorritako instrukzioan, 5. ataleko 5. lerrokan honakoa dio hitzez hitz:

"BALDIN ETA BANAKETA ZUZENEAN BALIABIDE BEREKIEKIN EGIN BADA, FORMAZIO POLITIKO BAKOITZAREN ARDURADUNAK ZIURTATUKO DU, HALABER, GUTXIENEZ ERE MAILA PROBINTZIALEAN, ZENBAT BIDALKETA EGIN DIREN. FORMAZIO POLITIKOAK GORDE BEHARKO DU BANAKETA HORRETAN PARTE HARTU DUTEN PERTSONEN ZERRENDA, EGIAZTAKETAK EGIN NAHI BADIRA ERE"

Aurkeztutako hauteskunde-kontuetan, dokumentazioaren barruan, hauteskundeetako boto-txartelen posta-banaketan parte hartu duten pertsonen lan-kontratuen, nominen eta abarren zerrenda bat badago.

Halaber, idazkiarekin batera, formazioko arduradunaren ziurtagiria bidaltzen dugu, non egindako bidalketa-kopurua egiaztatzen baita.

Horregatik guztiagatik:

ESKATZEN DUT:

- Idazki hau behin-behineko txostenari aurkeztutako ALEGAZIO gisa har dadila.

– Egindakotzat jo dadila propagandaren bidalketa pertsonala, EH BILDU Federazioaren baliabide berekietan Nafarroako Komunitateko hauteskunde-eroldako pertsona guztiei egindakoa.

– Lan-kontratuek berariaz jasotzen dute posta-banaketarakoak direla, eta gastuaren kapitulu horrela aitortu da behin-behineko txostenean.

– Hori dela eta, kontzeptu hori dela-eta dagokigun diru-laguntza osoa eskatzen dugu.

Josefina Ibero Baraibarrek, 18192034-T zk.ko NANA duenak, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetako EH BILDU Federazioaren administratzaile nagusia naizenak:

ZIURTATZEN DUT:

Ordezkatzen dudan formazioak zuzenean eta baliabide berekiekin hauteskunde-propagandaren 242.044 zuzeneko bidalketa egin dituela, eta horretarako behar ziren langile eta baliabideak kontratatu dituela; horiek behar bezala justifikatu dira aurkeztutako hauteskunde-kontabilitatean.

Hori sinatzen dut behar diren ondorioak izan ditzan.

Irantzu Urtizberea Ijurcok, 72466501-X NANA duenak, 2015eko maiatzaren 24an egindako Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetarako EH BILDUKo administratzaile nagusia naizenak, Josefina Ibero Baraibarrekin batera (18192034-T zk.ko NANA)

AZALTZEN DUT:

Nafarroako Parlamenturako hauteskunde-kontabilitateen arauzkotasunari buruzko behin-behineko fiskalizazio-txostena jaso dudala, eta behin hura aztertuta, honako hau aurkitu dugula, betiere ordezkatzeko dudan formazioari dagokionez:

– EH BILDU Federazioari onartu egiten zaizkio propaganda bidaltzeagatikoko gastuak, 122.386,79 euro egiten dutenak.

– Kontzeptu horretarako gehieneko diru-laguntza 120.304,00 eurokoa da

– Federazioari emandako diru-laguntza 62.213,52 eurokoa da, zeren eta jotzen baita justifikatutako bidalketak 259.223 direla –Akroposten 151223 zk.ko eta Guposten 151224 zk.ko fakturak–.

Inguruabar horiek direla eta,

ADIERAZTEN DUT:

Ordezkatzen dudan formazioak Correosekin kontratatuta zeukan hauteskunde-propaganda Nafarroako Komunitateko hauteskunde-eroldako pertsona guztiei bidaltzea.

EH BILDU FEDERAZIOAZ GUZTIZ KANPOKOAK DIREN ARRAZIOIAK TARTEKO, bidalketa hori ezin izan zen egin, zeren eta jo baitzen bidali beharreko boto-txartelak EZ ZIRELA ZUZENAK.

Ondoren, eta kontratatutako bidalketa egiteko denbora materialik gabe, hasiera batean boto-txartelak zuzenak ez zirela jo zuen organo berak HAIEK ZUZENTZAT JO ZITUEN, BAINA EZIN IZAN ZEN BIDALKETA EGIN DENBORARIK EZ ZEGOELAKO.

Federazioak baliabide berekietara jo behar izan zuen, eta langileak eta bitartekoak kontratatu zituen banaketa egiteko. Gastu horiek HAUTESKUNDE-PROPANDA BIDALTZEKO GASTUTZAT aitortu ziren behin-behineko txostenean.

Halaber, Kontuen Epaitegiaren Osoko Bilkurak, 2015eko martxoaren 26an egindako bilkuran, instrukzio bat onetsi zuen, non zehazten baitzuen zein den formazio politikoek, hauteskunde-kontuak fiskalizatzeari begira, igorri behar duten dokumentazioa. Igorritako instrukzioan, 5. ataleko 5. lerrokadan honakoa dio hitzez hitz:

"BALDIN ETA BANAKETA ZUZENEAN BALIABIDE BEREKIEKIN EGIN BADA, FORMAZIO POLITIKO BAKOITZAREN ARDURADUNAK ZIURTATUKO DU, HALABER, GUTXIENEZ ERE MAILA PROBINTZIALEAN, ZENBAT BIDALKETA EGIN DIREN. FORMAZIO POLITIKOAK GORDE BEHARKO DU BANAKETA HORRETAN PARTE HARTU DUTEN PERTSONEN ZERRENDA, EGIAZTAKETAK EGIN NAHI BADIRA ERE"

Aurkeztutako hauteskunde-kontuetan, dokumentazioaren barruan, hauteskundeetako boto-txartelen posta-banaketan parte hartu duten pertsonen lan-kontratuen, nominen eta abarren zerrenda bat badago.

Halaber, idazkiarekin batera, formazioko arduradunaren ziurtagiria bidaltzen dugu, non egiaztatzen baita langile bakoitzak herriz herri zenbat bidalketa egin dituen: zuzeneko 201.909 bidalketa dira guztira.

Horregatik guztiagatik:

ESKATZEN DUT:

- Idazki hau behin-behineko txostenari aurkeztutako ALEGAZIO gisa har dadila.
- Egindakotzat jo dadila propagandaren bidalketa pertsonala, EH BILDU Federazioaren baliabide berekiekin Nafarroako Komunitateko hauteskunde-errolako 201.909 pertsonari egindakoa.
- Lan-kontratuek berariaz jasotzen dute posta-banaketarakoak direla, eta gastuaren kapituluan horrela aitortu da behin-behineko txostenean. Gainera, langile bakoitzaren ziurtagiri pertsonala jaso da, bidalketak zein herritan egin dituen adierazten duena.
- Hori dela eta, kontzeptu horri dagokion diru-laguntza eskatzen dut, kontuan hartuta Nafarroako Komunitateko errolako 461.133 pertsonari zuzeneko bidalketak egin zizaizkiela. Honela banatzen dira bidalketa horiek:

Baliabide berekien egindako zuzeneko 201.909 bidalketa.

Akroposten bidez egindako zuzeneko 180.755 bidalketa.

Guposten bidez egindako zuzeneko 78.469 bidalketa.

Adeitasunez,

EH BILDUK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEN ERANTZUNA

Kontuen Ganberak onartzen du EH-Bildu formazio politikoak aurkeztutako alegazioa, ondoren azaltzen ditugun xehetasun batzuekin:

Egindako lanetan zehar, aipatutako formazio politikoak enpresa pribatuen bidez eta baliabide berekien egindako hauteskunde-bidalketen gastuak aurkeztu zituen. Kontuen Ganbera honetan egiaztatu zen bidalketa-kopurua enpresa pribatuek egindakoei zegozkien: 259.022 bidalketa ziren. Formazioari baliabide berekiekin egindako bidalketen kopurua egiaztatzeko eskatu bagenion ere, ez zitzaigun informazio hori eman.

Hori dela eta, eta kontuan hartuta hauteskunde-bidalketarako diru-laguntza ematen dela egiaztatutako bidalketa-kopuruaren arabera, Ganbera honek ondorioztatu zuen formazio horri 62.213 euro zegozkiola (259.224 bidalketa bider 0,24 euro), egiaztatutako bidalketa-kopurua kontuan hartuta.

Irailaren 11n, ostiralez, EH-Bildu Nafarroa formazio politikoak alegazio bat aurkeztu zuen, non ziurtatzen baitzuen, modu orokorrean, 247.245 direla baliabide berekiekin egindako bidalketak. Horrek esan nahi zuen formazioak Nafarroako hauteskunde-eroldako pertsona guztiei (501.267 hautesle, horietatik 23.156 atzerrian bizitokia duten nafarrak) bidali ziela propaganda, eta diru-laguntzak 120.304 eurokoa izan behar zuela (501.267 bidalketa bider 0,24 euro).

Ikusita beste inongo formazio ez zela bidalketa-kopuru horretara iritsia, eta egindako jarduketa egoki egiaztatze aldera, Kontuen Ganberak, Kontuen Epaitegiaren jarraibideen arabera, eskatu zuen egoki egiazta zitezela bai baliabide berekiekin egindako bidalketak, bai enpresa pribatuen bidez egindakoak ere. Zehazki, eskatu zen behar bezala egiazta zedila udalerrri bakoitzean egindako bidalketak, enpresa bakoitzak egindakoak zein posta-banaketan parte hartutako pertsona bakoitzak egindakoak.

Alegazioak aurkezteko epea irailaren 14an, astelehenez, amaitzen bazen ere, aipatutako formazio politikoak eskatu zuen epe hori luza zedila, kasuko ziurtagiriak eskuratu ahal izateko. Irailaren 16ra –asteazkena– arteko beste epe bat eman zitzaion.

Irailaren 16an, asteazkenez, Kontuen Ganberak alegazioa jaso zuen, non 461.133 bidalketa egiaztatzen baitziren guztira (259.224 enpresa pribatuen bidez egindakoak eta 201.909, berriz, baliabide berekiekin). Kopuru hori lehenengo alegazioan ziurtatutako 501.267 bidalketaz bestelakoa da, eta ez ditu inongo kasutan ere jasotzen atzerrian egindako egoiliarrei egindako bidalketarik, halakorik ez baitzen egin.

Justifikazio hori aztertuta, aurkeztutako bidalketa guztiena, 456.298 bidalketa onartu ziren, zeren eta aurkeztutako bidalketen kopurua ez baitu inongo kasutan ere gainditzen udalerrri bakoitzeko dagoen hauteskunde-errola.

Aurreko guztia kontuan hartuta, hauteskunde-bidalketak direla-eta formazio horri dagokion diru-laguntza 109.511,52 eurokoa da (456.298 bidalketa bider 0,24 euro). Zenbateko horiek aldatu egin ditugu informazio hori zuten txosteneko tauletan (10., 17. eta 27. or.).

Iruñean, 2015eko irailaren 18an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas